

ikastola



**JARDUNALDI
PEDAGOGIKOAK** 





Erreferentziako
txartela:

Finantza-txartelen
erraztasun
guztiekin eta
gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguru**

abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es

orrian



3 ELKARRIZKETA: ISABEL CELÁAREKIN,
HEZKUNTZA SAILBURUAREKIN, SOLASEAN

8 HERRI URRATS, MAIATZAREN 9AN

10 ERREPORTAJEA:
XVII. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK /
KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA /
BERRITU ETA HOBETU:

XABIER GARAGORRI ETA MIKELE ALDASORO,
JAVIER MURILLO, XAVIER ROEGIERS, RAFEL LEMUS,
MANU AURREKOETXEA, ANTONIO RODRIGUEZ DE LAS
HERAS, MONSERRAT VENTURA, ALFONSO VAZQUEZ, ISABEL
SOLANA ETA JULIO FONTAN, JOSUNE GEREKA, XABIER
MAIZA, MAITE GOMEZ ETA OIHAN ODRIUZOLA IKT-ak, ...

EDITATZAILEA:

IKASTOLEN KONFEDERAZIOA

Zamudioko Teknoloxi

Elkartegia, 208 B-1

48170 ZAMUDIO

Tel.: 606 33 41 45

KOORDINATZAILEA:

Zurrite Mendizabal

aldizkaria@ehik.ikastola.net

ERREDAKZIOA:

Joxean Agirre eta

Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILEA:

Inanol Artola

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILEA:

GERTU Inprimategia.

Oñati. Tel.: 943 78 33 09

ISBN:

Ikastolen Konfederazioa,

84/933872/6/6

MARTXOA 2010

181

IKASTOLA ALDIZKARIA  www.ikastola.net

ELKARRIZKETA ◀

Isabel Celáa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua da.

Bilbotarra. Eusko Legebiltzarkidea azkeneko hiru legealdietan, historikoki hezkuntza gaiak jorratu ditu talde sozialistan.

Hezkuntza sailburua izendatua izan zen 2009an Patxi Lopezen gobernuaren osatzerakoan. Ikastola Aldizkariak egindako galderak erantzun ditu.

“Ikastolak sistemaren osagai garrantzitsua zarete”.

Adituek diote proiektu handiak legealdia-
ren hasieran jarri behar direla abian edo ez direla aurrera aterako. Proiektu handiekin zatoz? 2009ko ekainaren 10ean Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean egin nuen agerraldian azaldu nituen legealdirako helburu eta proiektuak.

Ikerketari eta Goi Mailako Hezkuntzari garrantzia handia eman diot, ezagutza-gizartearen eta hazkunde-molde berriaren oinarria hor baitago. Euskal hezkuntzaren modernizazioari ere ekin diot. Eskolaren eraldaketa teknologikoa (Eskola 2.0 programa) eta Hezkuntza Marko Hiru-leduna asmo horren barruan ulertu behar dira. Hizkuntza kontuetan, Euskara 21 txostenaren ildotik ekiteko asmoa dut. Ekitatearen eta, aldi berean, kalitatearen apustua egin dut, eta Europar Batasunak gomendatzen dituen helburuetara hurbiltzeko konpromisoa hartu dut. Ikasleen bikaintasuna sustatzeko neurriak hartu ditut eta zientzia ikasketak indartzeko zenbait ekimen ere bai: honen adibide dira, esate baterako, Elhuyar Fundazioarekin batera aurtengo uztaileko antolatutako Zientzia Udalekuak. Lanbide Heziketaren sistema integratua abiarazteko asmoa dut, eta Bizitza Osoan zeharreko Heziketaren Lege-proiektua aurkezteko konpromisoa hartu dut. Baloreen hezkuntza eta Bakerako hezkuntzaren zentraltasuna azpimarratzeko programak ere abian jarri ditut.

“Nolaz” ere hitz egin nuen agerraldi hartan, eta akordioaren zein adostasunaren aldeko apustua egin nuen; indar politikoen eta euskal hezkuntza osatzen duten eragile guztien adostasunaren aldeko apustua, alegia. Apustuak bere horretan dirau.

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza, paradigma berria. Arreta konpetentziak garatzean jarri beharrean, emaitza akademikoetan jartzan jarraitzen duzuela diote. Egia al da? Konpetentzien kontu honetan esan beharra dago nire Sailak ez duela aldaketa esanguratsurik egin curriculumetan. Lehengo orientazioarekin jarraituko dugu arlo honetan; Europar Batasunaren gomendioetatik eta LOEtik datorren orientazioarekin, alegia. Batzuetan ematen du aurretik egindako guztia hankaz gora jarri dugula, baina ez da horrela. Aprobetxagarri asko zegoen eta hori guztia gorde egin dugu curriculum berrituetan ere, adibidez, konpetentzietan oinarritutako hezkuntza. Curriculum horietan oso ondo uztartuta daude konpetentziak, helburuak eta edukiak. Ez dut ikusten edukiak eta konpetentziak kontra-jarritu daudenik, alderantziz baino.

Azken aurrematrikulazioaren datuak ezagutu berriak dira eta ematen du gizarte-joera naturala dagoela D eta B ereduera, A ereduaren kaltetan, aurreko gobernuekin gertatzen zen bezala. Zein irakurketa egiten duzu honetaz? Oso pozik nago egin dugun lanarekin. Nire asmoa kontu honetan gardentasuna ziurtatzea izan da eta gurasoen aukera-askatasuna bermatzea. Ez diogu honi inolako beldurrik izan behar. Euskara 21 txostenak izugarri baloratzen du euskararekiko atxikimendu borondatezkoa, librea. Hor jartzen du, azken batean, erabilera handiagoaren giltza. Ni erabat ados nago horrekin. Eta horren kontrako gauzarik txarrena gardentasun eza da. Orduan hasten dira susmoak eta bestelako arazoak. Gardentasunak, ordea, gizartearen nahia edo joera hobeki azaltzea ahalbidetzen du. Egia esan, prozesu honen ondorioz atera den “argazkia” ez da ezustekoa izan niretzat.

Komunikabideetan eragin handiko eztabaida sortuaz hasi zenuen ikasturtea. Dotrinatzea le-

“EUSKARA 21 TXOSTENAK IZUGARRI BALORATZEN DU EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDU BORONDATEZKOA, LIBREA. HOR JARTZEN DU, AZKEN BATEAN, ERABILERA HANDIAGOAREN GILTZA. NI ERABAT ADOS NAGO HORREKIN”.

poratu zenien Saileko aurreko arduraduneri. Azal dezakezu leporatze honen zergatia? Curriculumez hitz egiterakoan aipatu nuen dotrinatzea. Niretzat hau printzipiozko gauza da, dotrinatzea heztearen antitesia delako eta dotrinatzea dagoen tokian benetako hezkuntzarik ez dagoelako. Finean, hezkuntza askatasunean mamitu behar delako. Nik ez dut inolako dotrinatzerik nahi, ez nire ideiekin – ideia sozialistekin- egindakoa ere. Horrelako dezentze zegoen aurreko curriculumetan. Gauza askotan ideologia zientziaren eta errealitatearen gainetik jartzen saiatu ziren. Hori da konpondu dena.

Ardura eta erantzukizun zuzena izan zenuen, sailburuorde bezala 1991-1995 bitartean, oraindik indarrean dagoen curriculumaren lanketan, eta bertan Euskal Herria kontzeptua jasotzen zen, EAEko esparrura mugatu gabe. Behin-behineko kontzeptua ez dela kontuan hartuta, nola azaltzen duzue orain egiteko asmoa daukazuen aldaketa? Lehen jasotzen zen eta orain ere jasoko da; ez dago horretan inolako arazorik, Euskal Herria izan badelako. Erabilera gehiegizkoa, testuingurutik ateratakoa eta kutsu partidistaduna izan da egindako aldaketekin ekidin nahi izan dudana. Esanahi zabalago eta integratzaileago baten alde egiten

saiatu naiz. Bestalde, harritu egin nau aurreko curriculumetan Euskal Herria terminoa hainbeste bider ikustea gaztelaniazko bertsioan, hizkuntza horretan parekorik izango ez balu bezala. Erabilera ez zen, beraz, batere neutroa, karga ideologiko handikoa baizik, eta hori ez da, nire ustez, curriculum batean agertu behar dena. Egin dugun aldaketan gainzama hori kenduta dago, eta “Euskal Herria” bere zentzu propio eta naturalean agertzen da.

Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenak oraintsu emandako epai batean dioenaren arabera, Nafarroa ezin izango litzateke sartu Euskal Herria kontzeptuaren barruan, zure Sailaren ardurapean dauden eskoletako curriculumean. Aldaketak etorriko dira? Guk aldaketak Auzitegiaren erabakiak ezagutu baino lehen eginda genituen eta horretarako arrazoiak oraintxe aipatu ditudanak dira. Horiek horrela, esan behar dut Auzitegi Gorenak emandako epaiek ez dutela gai honetaz eginda genuen interpretazioa oztopatzen, indar-

tzen baino. Hartara, ez dut inolako beharrik ikusi argipen bat eskatzeko edo helegite bat jartzeko. Bestalde, Curriculumak derrigorrezkoak izango dira, baina, betiko moduan, ikastetxe bakoitzak eta irakasle bakoitzak egokitu egin beharko dituzte beren egoeretara. Hemen ez dago nobedaderik.

Hitz egin dezagun euskarari buruz. Arauak dio derrigorrezko hezkuntza garaia amaitzerakoan ikasleagoak gaitasuna behar duela berdin euskaraz zein gaztelaniaz, ingelesez ere maila on bat emanaz. Argi dago hizkuntza ereduaren egungo sistemak ez duela bermatzen helburu hori. Zein neurri hartzeko asmoa daukazu helburu hori bermatzeko? Hizkuntza kontu honetan Euskara 21 txostenera joko dut ostera ere. Bertan bi elementu lotzen dira: gurasoen aukera-askatasuna eta legeek agintzen dutena bi hizkuntza ofizialen ezagutzari buruz eta, beste maila batean, atzerriko hizkuntza batean lortu behar den gaitasunari buruz.

Hortik abiatu naiz eta, arestian esandako agerraldian azaldu nuen bezala, prest nago ereduaren sistema gaitutiko duen beste batera igarotzeko, horretarako behar besteko adostasun politikoa eta soziala baldin badago. Ereduen sistema ez da gutxietsi behar. Bere fruituak eman ditu eta esan dezakegu gure



“HELBURU HIRUKOITZ BATEKIN PLANTEATZEN DA PROIEKTUA: EUSKARA SUSTATZEA, ELEBITASUNA SENDOTZEA ETA INGELESA AKTIBATZEA. MINIMO BATZUK JARTZEN DIRA HIZKUNTZA GUZTIENTZAT, ETA HORTIK AURRERA AUTONOMIA ZABALA EMATEN ZAIE IKASTETXEEI BEREN HIZKUNTZA PROIEKTUAK EGIN DITZATEN”.

“FUNTS PUBLIKOEKIN HORNITUTAKO IKASTETXE KONTZEPTUA ERE GERO ETA GEHIAGO ERABILTZEN DA ETA OSO KONTZEPTU INTERESGARRIA DELA IRUDITZEN ZAIT HEZKUNTZA-SISTEMAREN EGINKIZUNAK MODU EGOKIAN UZTARTZEKO, HAU DA, KALITATEA ETA BIKAINASUNA EKITATEAREKIN EGOKIRO UZTARTZEKO”.

▲ belaunaldi gazteen elebitasun maila sistema horren zordun dela, neurri handi batean. Oro har positiboa izan dela esan daiteke, baina baditu bere ezintasunak ere, eta uste dut posible dela beste bide batetik abiatzea. Horregatik aurkeztu berri dut Hezkuntza Marko Hirueledunaren esperimentaldia. 40 ikastetxek hartuko dute parte horretan eta 2010-2011 ikasturteetik aurrera hasiko da, hiru urteko iraupena izango duelarik. Helburu hirukoitz batekin planteatzen da proiektua: euskara sustatzea, elebitasuna sendotzea eta ingelesa aktibatzea. Minimo batzuk jartzen dira hizkuntza guztientzat, eta hortik aurrera autonomia zabala ematen zaie ikastetxeei beren hizkuntza proiektuak egin ditzaten. Esperimentazioaldi hau igaro ondoren, egin beharreko ebaluazio guztiak egin ondoren, Hezkuntza Marko Hirueledunaren ezarpen orokorra emateko pausoak emango nituzke, adostasuna eta akordioa tarteko.



ekonomikoa nolakoa den, eta denok egin beharko ditugu geure egokitzapenak, nahitaez. Osu epe luzeko proiektuak eta konpromisoak egoera honetan ezinezkoak dira, urratsez urrats egin beharko dugu aurrera. Testuingurua horrelakoa dela jakinda ere, ez nuke murrizketarik aipatuko, beharrezko egokitzapenak baizik.

Goazen hezkuntza politika orokorrak mintzatzera. Badago zure alderdian landutako hezkuntzari buruzko gogoeta-txosten bat, 2001 urtekoa eta zuk ondo ezagutzen duzuna, zeinetan esaten den berezitu egin behar direla eskola publikoa eta estatu-eskola kontzeptuak, era berean esaten delarik eskola publiko bezala aitortu behar direla kooperatiba edo antzeko elkarteak titular dituzten eskolak, zehaztuaz ikastetxearen izaera publikoa ez datzala titularitatean bakarrik, baizik eta ematen duen zerbitzuan. Batzatzoz irizpen horrekin? Egia da bi kontzeptu di-

rela zerbitzu publikoa eta titularitate publikoa eta, bestalde, kooperatibak beste berezitasun batzuen jabe direla, kudeaketa eta patrimonio kontuetan, esate baterako. Izaera kontuetan ezin gara legeek esaten digutenetik urrundu: ikastetxeak bi eratakoak dira, hala nola, publikoak eta pribatuak, eta azken hauek itunpekoak edo ez.

Funts publikoekin hornitutako ikastetxe kontzeptua ere gero eta gehiago erabiltzen da eta oso kontzeptu interesgarria dela iruditzen zait hezkuntza-sistemaren eginkizunak modu egokian uztartzeko, hau da, kalitatea eta bikaintasuna ekitatearekin egokiro uztartzeko.

Uztarketa horretan dago karkoa, hezkuntza-sistema bidezkoago eta egonkorrago batera helduko bagara. Bide horretan asko hitz egin behar da, adostasuna bilatzeko asmoarekin hitz egin behar da, eta alde guztien eskakizunak zein konpromisoak ondo argitu, akordio batera heltzea xede dugularik. Hori izan da nire hasierako asmoa eta horretan ari naiz orain ere.

Hau ikastolen aldirikari korporatiboa dela kontuan hartuta, utzi diezazu galdera hau egiten: zein iritzi daukazu ikastoletaz? Egon berria naiz zuen XVII. jardunaldi pedagogikoen irekiera-ekitaldian, eta bertan esan nuena errepikatuko dut: ikastolak euskal hezkuntza sistemaren osagai garrantzitsua zarete. Horrela izan da historikoki eta gaur egun ere horrela da. Egiten diharduzuen ekarpena oso garrantzitsua da gure hezkuntza sistemarentzat. Honela baloratu izan dut beti, lehen beste erantzukizunak nituenean eta orain Hezkuntza Sailaren ardura daukadanean. [likeSRola](#)

CONSEJERA DE EDUCACIÓN DESDE 2009


Isabel Celáa considera que las ikastolas son 'parte fundamental del sistema educativo vasco, tanto históricamente como en la actualidad'. La actual consejera de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno de Patxi López, asegura que el concepto Euskal Herria se mantendrá en el currículo escolar, 'porque Euskal Herria existe'. Puntualiza que serán suprimidas aquellas menciones consideradas 'excesivas' en

el uso del término. También se muestra dispuesta a superar el marco actual de los modelos lingüísticos, siempre que haya consenso, y propone de manera experimental el modelo trilingüe. 'excesivas' en el uso del término. También se muestra dispuesta a superar el marco actual de los modelos lingüísticos, siempre que haya consenso, y propone de manera experimental el modelo trilingüe.

CONSEILLÈRE DE L'ÉDUCATION AU GOUVERNEMENT BASQUE

Isabel Celáa considère que les ikastola "font partie intégrante du système éducatif basque et ce depuis leur création". L'actuelle conseillère de l'Éducation, des Universités et de la Recherche du Gouvernement de Patxi López assure que le concept Euskal Herria sera maintenu dans le curriculum scolaire "car Euskal Herria existe". Elle précise que les

mentions jugées "excessives" quant à l'utilisation du terme seront supprimées. Elle est également disposée à dépasser le cadre actuel des modèles linguistiques, à condition qu'il y ait consensus, et met en avant le modèle trilingue à titre expérimental.



Zatoz zientziaren aurpegi alaiaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza



ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- 170 esperimentu interaktibo
- Planetarium Digitala
- Planetarium Txikia
- Exploratoriumeko Simulagailuak: Errusiar Mendia eta Tranbia
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta,...



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Zientziaren kutxaGunea

Mikeletegia Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia

Tlf: 943 012 478. www.miramon.org

kutxaespacio@kutxagunea.org

zer nahi duzu bihar?

iparralde:



ITSASUN ETA LEKORNEN IKASTOLA BERRIAK ZABALTZEKO **SEASKAK** hurbiltasuna eskainiz indartu nahi du


Jendearekiko hurbiltasuna bilatu nahi du **Seaskak**, eta helburu horrekin ikastolen sarea zabaltzen ari da. **Hazparne** ondoan dagoen Lekornen eta Kanbotik gertu dagoen Itsasun ikastola txiki bana zabalduko dute datorren irailean.



HERRI URRATS



MAIATZAREN 9an



HAZPARNEKO IKASTOLA TXIKI GERATU DA ETA ESKUALDEAK BESTE BI IKASTOLA IZANGO DITU AURKI: duela bi ikasturte zabaldu zuten Arberoako ikastola Donamartirin (Saint Martin d'Arberoue) eta irailean zabaldu nahi dute beste bat Lekornen (Mendionde). "Lekornek eta inguruko herrixketako ikasle talde bat joaten da Hazparnekora eta Lekornen bertan ikastola bat zabalitzen badute, haur gehiago erakarriko dituela uste dugu. Ama-ikastola zabalduko da lehenik, baina denborarekin Lehen Maila ere bertan ematea da helburua. Lekornek auzo batean, Gerezietan, zegoen eskola baliatuko dute ikastola zabaltzeko", esan zigun **Serge Zudairek**, Herri Urrats Bulegoko lehendakariak. Gauza bera egingo dute Itsasun. "Seaskaren politika da ahal

bezainbat ikastola txiki irekitzea, indartuz joango diren itxaropenarekin. Jendeari aukera emanez, hurbiltasuna eskainiz, ikasle gehiago erakarriko ditugula espero dugu, gurasoek ere seme-alabak bakoitzak bere herrian heztea nahi baitute", jarraitu zuen. Zazpiehun bizilagun inguru ditu Lekornek eta 1.500 bat Itsasuk, baina bakoitzak inguruko herrietakoak ere bilduko digu. Jaioko diren ikastola berrion inguruan guraso taldeak eratu dira, eta dagoeneko ikuskizunak zein emanaldiak antolatzen ari dira dirua biltzeko.

MAIATZAREN 9AN Aurtengo Herri Urrats maiatzaren 9an egingo da

Senpereko lakuan. "Euskara mihian, irria begian" da aukeratu den leloa. "Ekainean aukeratu genuen leloa, zabaldu genuen logo lehiaketa, eta urriko batzarrean Irungo Eneko Lekuonarena aukeratu genuen. Batzar horretan urteko helburuak ezarri eta aurre-kontuak erabakitzen dira", esan zuen **Estelle Goñik**, Herri Urratseko koordinatzaileak.

Batzarrean ikastola guztietako ordezkariak hartzen dute parte, baita lan talde guztietakoek ere. "Hogeita zazpi ikastola ditugu eta bakoitzetik bat etortzen da Herri Urratseko batzarrera. Guztira 35 bat lagun biltzen gara", erantsi zuen Zudairek.

Urritik aurrera hasten dira logo berriarekin jantziak ikastoletara banatzen, eta saltzen duten %20 ikastola bakoitzarentzat izaten da. "Eguberri bueltan salmenta egunak antolatzen dituzte. Salmenten erdia saltzen dugu ikastoletan eta beste erdia Herri Urrats egunean bertan", gogoratu zuen Estelle Goñik.

Herri Urratseko kantaren hitzak Ezitxu Oillarburu bertsolari gazteak idatzi ditu, Mikelats eta Bostgehio taldeek egin dute musika eta Bostgehio neska taldeak abestu du.

Herri Urratsen Bulegoak hartzen ditu erabaki nagusiak. Lehendakariak, idazkariak eta diruzainak, gehi beste lau kidek eta Seaskako ordezkari batek osatzen dute Bulegoa.

Herri Urratseko ibilbidean jartzen diren ostatu edo tabernak

ikastolen esku egoten dira eta bakoitzak antolatzen du berea. Zugarramurdiko talde bat etortzen da zikiroa erretzera, Zapiainek jartzen du sagardotegia, eta paella handi bat egiten da LumaGorriren oilasko eta Kaikuren produktuekin.

Herri Urratsen antolatzaileen ustez, Hegoaldeko jendea gutxitu egin da tamalez azken urteotan, eta berriro horiek erakartzen saiatuko dira.

EGITARAUA

Estelle Goñirekin batean, **Elix Housseguy** Haurren Txokoaren arduraduna eta Serge Zudaire, Herri Urratseko Bulegoko lehendakaria bildu genituen Senpereko lakuan aurtengo berrikuntzak aipatzeko. "Okzitaniatik La Mal Coiffée taldea etorriko da. Bertako herri kantarekin polifonia egiten duten sei emakume dira. Katalunia Iparraldetik castellet bat egitera etorriko

ANTOLAKUNTZA SAIAITZEN DA ADIN ETA GUSTU EZBERDINETAKO EGITARAU ABERATS BAT ESKAINTZEN FAMILIAN ONGI PASATZEKO EGUNA BAITA. HEGOALDEKO FAMILIETAN, HAIN ZUZEN, DEIALDIA EGITEN DUE AURTEN BAIETZ, AURTEN ETOR DAITEZEN IPARRALDEKO IKASTOLEN EGUN HANDIA ELKARRKIN OSPAIZERA.

ESTELLE GOÑI KOORDINATZAILEA. ELIXE HAUSSEGUY HAURREN TXOKOKO ARDURADUNA. NINA BERE ALABATXOAREKIN ETA ZUZU ZUDAIRE HERRI URRATS BULEGOKO LEHENDAKARIA.

2. ekar ilustrazio eta ipuin lehiaketa

oinarriak: www.elkar.com-en eta elkar sareko liburu denda guztietan





LEKORNEKO IKASLEAK IKASTOLAKO ATARIAN. LASTER UME GEHIAGO ELKARTUKO ZAIZKIE. INGURU HORRETAN ESKAERA HANDITZEN ARI BAITA.

da talde bat. Ehun bat lagunek osatzen dute taldea, autobusean etorriko dira, eta bi emanaldi egingo dituzte”, esan zuen Estellek. Serge Zudairek gogoratu zuenez, piroteknia ikuskizun bat ere izango da aurten Senpereko lakuan dagoen uhartean. Zuberoako Suak antzerki taldea da ikuskizuna emango duena. Hanka-paloen gainean dantza egiten duen Biarnek talde bat ere etorriko da, Bedaxagar kantariak saioa eskainiko du, Ander Lipus aktoreak “Erregearen bufoia” ikusgarria emango du, eta pailazoak ere iragarri dira egitarauan. Kontzertuei dagokienez, Anari, ZeaMays, Bizardunak, Xabier San Sebastian... izango dira. Herri kirolak ere egingo dira. “Koldo Alduntzinek antolatu eta

aurkeztuko du emanaldia. Sei kirol elkartuko ditu; emakume eta gizonezkoak nahastu, eta lurralde guztietako ordezkariak ekarriko ditu. Hirurogei bat laguneko taldea izango da”, esan zuen Estellek.

Dantzak eta kantuak ere izango du lekuri egitarauan. Filgie Claveriek kudeatzen duen Dantzaz taldea, lehen Ballet Biarritz Junior zena eta orain Donostian kokatzen dena, izango da Senperen. Bardozeko dantza taldeak mimoa, txotxongiloak eta dantza nahasten dituen “Gauzak biltzen” ikuskizuna ekarriko du.

Zudairek esan zuenez, ahalegin berezia egiten ari dira Herri Urratsen ibilbidean zehar txarangak eta animazioa gehitzeko, giroa sortzeko onena hori delakoan. •



Ttipia LAGAN

(Itsasuko gurasoa)

“Seaskako guraso izateko taloak egiten ikasi behar da”

Oraindaino Kanboko ikastolan ibili da Ttipia Laganen alaba zaharrena, eta gauza bera egin dute Itsasuko, Luhusoko, Zuraideko eta Ezpeletako haurrek. Itsasutik bakarrik 40 bat haur joaten dira. Haur horiek Kanboko ikastolan jarraituko dute, baina irailean ikastola berri bat zabaldu nahi dute Itsasun, eta Bigarren Hezkuntzara bitartean bertan eskolatzeko aukera izango dute aurrerantzean. “Duela bi urte pasa Kanboko ikastolako biltzar nagusi batean ikusi genuen haurren kopurua emendatzen ari zela eta zetozen haurrei harrera egiteko ikastola txikiegi geratzen ari zela. Orduan hasi ginen Itsasu, Luhuso eta Ezpeletako guraso talde bat biltzen eskualdean beste ikastola bat zabalteko. Inkesta bat egin genuen eskualdeko herrietan aurrera begira haur kopuru handiena non egon zitekeen ikusteko, eta Itsasu izan zitekeela ikusi genuen. Geografikoki ere biziki ongi kokatua da, Ezpeleta, esate baterako, ez baitago lanerako bidean”. “Itsasuko Herriko Etxeak bazuen lur eremu bat eskola publikoa handitzeko eta zati bat soberan zutela esan ziguten. Hor egingo dugu ikastola berria. Ikastola horrek, hasieran bederen, Kanboko eranskin gisa funtzionatuko du, administrazio aldetik hark kudeatuko baitu, baina denborarekin, handituz doan neurrian, bereizi egingo da, nahiz eta dagoeneko guk gure guraso elkarteak izango dugun”, esan zuen Ttipia Laganek. •

Maite DUBOIS

(Lekorneko gurasoa)

“Hamar ikaslerekin zabalduko dugu ikastola irailean”

Orain bi urte Hazparnetik gertu zegoen herrixka batean, Donamartirin (St. Martin d’Arberou), ikastola zabaldu zuten eta inguruko herrixketatik, Donostiritik eta Isturitzetik esate baterako, bertara eramaten dituzte haurrak. Irailean beste herrixka batean zabalduko dute ikastola, Lekornen, eta honek ere Makea, Heleta zein Lekuineko haurrak bilduko ditu. “Herri hauetatik Hazparnera edo Baijona aldera joaten gara lanera gurasoak, eta umeak bidean uzteko moduan kokatu behar ditugu ikastolak. Lekorne Hazparnetik 7 kilometro dago, eta beste hiru herrietatik datozen gurasoek ere hemen utziko dituzte”, esan zigun Maite Dubois gurasoak. Gure helburua garbia da: euskara atxiki nahi dugu gure herrietan eta horretarako ezinbestekoa da ikastolak eraikitzea. Hazparneko ikastola handitzen ari da eta herri txikietara zabaltzea egoki ikusten genuen. Herri herri ibili gara hautetsi eta auzapezekin hizketan, lekuri bazuten galdezka, eta azkenik Lekorneko Gerezieta auzoan aurkitu dugu ikastola egiteko lekuri egokiena, hogeituz itxita egon diren eskola zahar batzuetan. Berritu egin behar ditugu. Herriko Etxeak jarriko du lan horiek egiteko aurrekontuaren zati nagusia eta gurasoek jarriko dugu falta dena”, jarraitu zuen Maitek. •



DOS IKASTOLAS MÁS EN IPARRALDE

Seaska está jugando la baza de la proximidad que a un plazo medio podría dar sus frutos. Está tejiendo poco a poco una red de ikastolas pequeñas que con los años podrían redundar en un considerable aumento en el número de alumnos escolarizados en la red. El próximo setiembre se abrirán dos nuevos centros de

Educación Infantil, uno en Lekorne y otro en Itsasu. La próxima edición de Herri Urrats, que se celebrará el 9 de mayo, será una buena ocasión para dar a conocer estos dos nuevos proyectos. La edición contará con muchas novedades en el programa y pondrán un especial énfasis en la animación a lo largo del circuito.



DEUX IKASTOLA DE PLUS EN IPARRALDE

Question ouverture de nouvelles écoles, Seaska a choisi de jouer la carte de la proximité. L’association développe petit à petit son réseau de petites ikastola grâce auquel dans quelques années elle pourra augmenter considérablement le nombre d’enfants scolarisés dans la filière. Deux maternelles seront ouvertes à la rentrée

prochaine, à Mendionde et Itxassou. La prochaine édition d’Herri Urrats le 9 mai prochain sera l’occasion de mieux connaître ces deux nouveaux projets. La journée du 9 comptera par ailleurs beaucoup de nouveautés au programme et une emphase particulière au niveau de l’animation tout au long du parcours.



GARBERA ARRASATE



En los artículos señalizados



Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Deusto

Europarako graduak

2. promozioa

Ateak Zabalik Jardunaldia

Maiatzak 8



Donostiako Campusa
943 326 308

e-mail: infoacad@ud-ss.deusto.es
www.nuevosestudiantes.deusto.es

Bilboko Campusa
902 302 301

e-mail: nuevosestudiantes@deusto.es
www.nuevosestudiantes.deusto.es



XVII. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK /
KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO
HEZKUNTZA /

BERRITU ETA HOBETU

Irakasleak eserita
Irakasleen Jardunaldiak

“Ezinbestean gaude onenen artean”





ISABEL CELAA HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA ETA IKERKETA SAILBURUAK HASIERA EMAN ZION AURTENGO EDIZIOARI. ARGAZKIAN BEREAREKIN BATERA KOLDO TELLITU ETA IMANOL IGEREGI IKASTOLEN ELKARTEKO LEHENDAKARI ETA ZUZENDARIA; ETA LEHEN ARGAZKIAN ERE JAVIER NOGALES, HEZKUNTZA SAILEKO.

“BERRITU ETA HOBETU” zen aurtengo Jardunaldien leloa eta Koldo Tellituk, Ikastolen Elkarteko lehendakariak, irekiera ekitaldian oso garbi agertu zuen zergatik egon diren ikastolak beti onenen artean. **“Onenen artean egotea ez da inoiz izan aukera bat ikastolentzat, ezinbesteko baldintza baizik, baldintza hori bete dugun neurrian utzi baitzaigu leku bat gizartearen eta hezkuntza sisteman”**. Horretarako, eredu pedagogiko aurreratuenak ezagutzera jo zutela hasieran, eta horretantxe jarraitzen dutela gaur esan zuen. Mende honetako erronka nagusia Euskal Curriculumua garatzea dela gogoratu ondoren, **“erabateko apustua egiten dugu Euskal Herriaren aitortzaren alde; eleaniztasunaren aurrean ere garbi dugu euskaran ardaztutako hezkuntza eleanitza nahi dugula”**, adierazi zuen. • Imanol Igeregi Ikastolen Elkarteko zuzendariak, ondoren, Euskal Curriculumaren arloan hitzetik kudeaketara igarotzeko ordua iritsi dela erantsi zuen. **“Mende hasiera honetan ikastolak euskal hezkuntzari egin ahal diogun ekarpenik interesgarriena da Euskal Curriculumua”**, esan zuen. Honi lotuta, curriculum hori gauzatzeko bitartekoak agindu zituen, hala nola, zazpi langileren dedikazioa elkarte barruan, ikastaro eta mintegiak irakasleen prestakuntzan eta Elkar argitale-txearekin lankidetzan proiektu **“berritzaile”** bat ere bai. >>>



MIKELE ALDASORO ETA XABIER GARAGORRI EUSKAL CURRICULUMAREN GARAPEN PROZESUAK AZTERTZEN ARITU ZIREN. EBALUAZIOAREN GARRANTZIAZ, ARGAZKIAN, ABEL ARIZNABARRETA IKASTOLEN ELKARTEKO PEDAGOGIA ARDURADUNAREKIN BATERA.

XABIER GARAGORRI eta MIKELE ALDASORO

Euskal Curriculumuma: harro egoteko moduko kontu bat

XABIER GARAGORRIK GOGOETA OROKOR BATZUEKIN IREKI ZUEN JARDUNALDIEN ATARIKO HITZALDIA. "EUSKAL CURRICULUMA EZ DA ORAINGOA. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA BETI IZAN DIRA IKASTOLEN IZAERAREN ARDATZ, BAINA ERA SISTEMATIKOAN EZ GENUEN INOIZ HORRELAKO SAIAKERARIK EGIN. KANPOKO CURRICULUMAK IZAN DITUGU, BAINA EUSKAL HERRI BEZALA EZ GENUEN BELAUNALDI BATETIK BESTERA ZIURTATU NAHI GENUEN ONDAREARI BURUZKO HAUSNARKETARIK. ZER DA OHO BUKATZEN DUENEAN EUSKAL HERRIAN BIZI DEN GAZTE BATEK GUTXIENEZ EZAGUTU BEHAR DUENA? GALDERA HORRI ERANTZUTEN SAIATU GARA, ETA HAU PAUSO HISTORIKO BAT DA. IKASTOLA MUGIMENDUAK HARROTASUN PUNTU BAT IZAN BEHAR DU GAI HONETAN, PAUSO GARRANTZITSU BAT EMAN DUGULAKO, BATEZ ERE EKINTZAREN FASE PROGRAMATIKO HONETAN", HASI ZEN.

"Ez da bakarrik edukiak edo kultur elementuen transmisioa ziurtatzea. Beste ekarpen bat ere badago, beste pauso bat ere eman dugu: oinarrizko kompetentzia orokorrak hartu ditugu, eta honek aldaketa sakon bat ekarri du edo ekarriko digu. Zein da aldaketa hori? Irakasle bakoitzak bere ikas arloaren bidez erakutsi behar du pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, izaten eta ekiten", esan zuen, eta Integrazioaren Pedagogiaren bidez

kompetentzia horiek egoera jakin batzuetan txertatzen ari zirela erantsi zuen.

Euskal Curriculumaren beste ekarpen bat ere aipatu zuen. "Curriculumak beti dekretu baten bidez ezarri izan dira eta ez zaigu zer nolako curriculumak nahi ditugunari buruzko kontsultak egiten, ez ditugu aurretik ebaluatzen. Gure prozesua oso bestelakoa da. Derrigorrezko Hezkuntzarako Euskal Curriculumuma oso prozesu sakona eta luzea izan da.

"EUSKAL CURRICULUMA EZ DA ESKOLAK BAKARRIK EGITEKO LAN BAT. GIZARTE ERAGILEEK ERE HARTU BEHAR DUTE PARTE. EZ DIOGU BEHAR BEZALA HELDU GAIARI!" • "AUKERA PAREGABEA DAUKAGU. EUROPAK EZARRI DITU KONPENTZIA OROKORRAK, PROPOSATU DIZKIGU. FRANTZIAKO LOIS D'ORIENTATION DELAKOAK ETA LOEK MAILA PRESKRIPTIBOAN ONARTU DITU KONPENTZIA HORIEK. LEHEN ALDIZ BI HERRIALDETAKO CURRICULUMEK ARDATZ BERDINA DUTE ETA GUREA ERE BIDE BERETIK DOA. AUKERA HISTORIKOA DUGU HORI GUZTIA UZTARTZEKO".



Ebaluatu eta hobekuntza proposamenak txertatu ditugu ondoren, Kristau Eskolekin eta Sortzen Ikasbatuazeko kideekin lankidetzan. Gauza bera egin dugu Ikastolen Oinarrizko Euskal Curriculumarekin ere", jarraitu zuen, eta lehen aldia izan zela, gogoratu zuen, gizarte zibiletik jaiotako proiektu bat Administrazioak neurri batean haintzat bere egiten zuena, EAEko curriculum ofizialaren ardatza ikastolakoaren berdina baita.

Gabeziak edo hobekuntza bideak? Galdetu zuen Garagorrik. *“Euskal curriculuma ez da eskolak bakarrik egiteko lan bat. Gizarte eragileek ere hartu behar dute parte. Ez diogu behar bezala heldu gaiari”,* esan zuen. *“Herri hau aberatsa eta bizia da, gorabeherak baditu ere. Kultur eragile asko daude ekarpenak egiteko gogoz, eta lankidetzatza bat bideratu behar dugu”,* jarraitu zuen.

EAEko curriculum ofizialarekin uztarketa eginga dago; Nafarroa eta Iparraldea falta dira. *“Aukera paregabea daukagu. Europak ezarri ditu konpetentzia*



orokorrak, proposatu dizkigu. Frantziako Lois d'Orientation delakoak eta LOEk maila preskriptiboan onartu ditu konpetentzia horiek. Lehen aldiz bi herrialdetako curriculumek ardatz berdina dute eta gurea ere bide beretik doa. Aukera historikoa dugu hori guztia uztartzeko”, esan zuen.

Gabezien artean azken bat aipatuz bukatu zuen Garagorrik. *“Ikastola bakoitzaren curriculum espezifikoa falta dira, eta beldur naiz ez ote diogun gaiari helduko. Kezka hori daukat. Testuinguruaren arabera osagarriak txertatu behar ditu ikastola bakoitzak bere curriculumean eta oraindik ez gara horretan hasi”,* esan zuen.

MIKELE ALDASOROri eman zion hitza eta honek Euskal Curriculumaren garapenean une honetan esku artean duten gai bati heldu zion, Ikaslearen Irteera Profilar, hain juxtu ere.

“Zer da Ikaslearen Irteera Profila? Oinarritzko Heziketaren Bukaeran ikasleak lortzea espero dena”, erantzun, eta honela jarraitu zuen: *“Profil hori definitzeko galdera batetik abiatu dugu: nolako pertsona hezi nahi dugu? Zein ezaugarri eduki behar ditu? Helmuga garbi edukitzeko aukera ematen digu Ikaslearen Irteera Profilar”,* esan zuen.

Ikaslearen Irteera Profilar bi zehaztapen maila ditu, Aldasorok agertu zuenez: profil orokorrak hezkuntza prozesuaren printzipioak eta zentzua markatzen ditu, zer nolako pertsonak hezi nahi ditugun, alegia. *“Eta irteera profil orokor hau integratuz definitzen da irteera profil espezifikoa. Hau erabat ebaluagarria da, eta ebaluazioa bera finkatu behar dugu”,* esan zuen. •



JAVIER MURILLO

Balio erantsia, eskolaren emaitza ‘garbiak’ kalkulatzeko

ORAIN 46 URTE JAMES S. COLEMANEK IKERKETA LUZEEN BURUAN GERORA MILA BIDER AIPATU DEN ESKOLARI BURUZKO TXOSTENA KALERATU ZUEN, ETA ONDORIOA EZIN GOGORRAGOA IZAN ZEN: “ESKOLAK EZ DU EZERTARAKO BALIO”, **ESKOLAK ERANTZUKIZUN GUTXI DUELA, ALEGIA, GAZTE BATEK LORTZEN DITUEN EMAITZEN GAINEAN, %20-25EKOAK BAKARRIK. ESTATU ESPANIARRAREN ORAINDIK TXIKIAGOA DELA USTE DUTE ERAGIN HORI, %15 INGURUKOAK.**

Zifra harrigarri horiek gogoratu zhasi zuen bere hitzaldi distiratsua **JAVIER MURILLO** Madrilgo Hezkuntza fakultateko irakasleak. *“Hori guztia 60ko hamarkadan esan zuen Colemanek, eskolari buruzko ikuspegia baikorren zegoenean, heziketaren bidez gizartea aldatuko genuela sinesten genuenean. Eskolaren erantzukizuna hain urria bada, %20koa bakarrik, noren esku dago gainerako %80?”* galdetu zuen. Gehien eragiten zuen faktorea gurasoen kultura maila zela erantzun zuen eta, zehatzago esanda, amaren kultura maila. Badira beste eragile

batzuk ere, hala nola, familien maila sozio-ekonomikoa, ikaslearen ahalegina eta motibazioa, edo hezkuntza sistema bera.

“Eskola ez da, beraz, kontrakoa esaten bada ere, gizartearen gaitz guztien arduraduna. Drogaren arazoak badira, auto istripuak gehitzen badira, genero indarkeria, beti dago politikoren bat ikasgai berri bat jarri behar dela esango duena. Matematiketan du eraginik handiena eskolak, eta hor ere ez da eskolaren eragina %20a iristen. Baloreen transmisioan, sorkuntzan eta beste zenbait arlotan eskolaren eragina

oraindik urriagoa dela uste da. Baina beharbada baloreak eta jarrerak ebaluatzen ikasi ez dugulako ere izan daiteke hau”, jarraitu zuen Murillok.

Egiaztapen hauetatik abiatu zen balio erantsiaren kontzeptuari buruzko argibideak emateko. *“Eskolak ikasleari egiten dion ekarpena neurtzen du balio erantsiak. Beste modu batean esanda, eskolak ikasleen aurrerapenean egin duen ekarpena da. Oso kontzeptu berria da hau hezkuntzan. 1991ean erabili zen lehen aldiz. Gure artean oso gutxi erabili da, baina AEBetan, esate baterako, asko”,* esan zuen.

Balio erantsia zer den argitzeko agerpen tekniko batzuk eman zituen Javier Murillok. *“Eskola baten balio erantsia kalkulatzeko familien kultura maila zein den jakin behar da alde batetik, eta eskolaren errendimendua*




“NOR DIRA EBALUAZIOETAKO EMATZEN ARDURADUNAK” ARITU ZEN JAVIER MURILLO BERE HITZALDIAN. ARGAZKIAN ITZIAR ELORZAREKIN BATERA.

XAVIER ROEGIERS

Konpetentziak ebaluatzeko, egoera konplexuak

XAVIER ROEGIERS Louvain-La-Neuve Unibertsitateko irakaslea da. Curriculuma diseinatu eta bideratzen lan egiten du munduko hainbat herrialdetan, eta Ikastolen Elkarteari lotura estuak ditu. Hain zuzen ere, bere bisita Elkarteko zenbait talderekin bilerak egiteko baliatu zuen. Jardunaldietako bigarren hitzaldia eman zuen egoera konplexuen bidez konpetentziak nola ebalua daitezkeen agertzeko. *“Emango ditudan irizpideak ez dira teorikoak, esperientziatik ateratakoak baizik, azken hogeitau urteotan berrogei bat herrialdetan ari bainaiz lanean”*, esanez hasi zen. *“Lanbide heziketan egoera konplexuen bidez ebaluatu izan dira betidanik ikaslearen konpetentziak. Eskolan eta goi-mailako irakaskuntzan, ordea, ez da horrela egiten; edukien eta ikasgaien bidezko ebaluazioa egiten da nagusiki. Ezagutzak ebaluatzen dira”*, esan, eta gaurko ebaluazio sistemaren akatsak saihesteko modu bakarra egoera konplexuetara jotzea zela erantsi zuen. *“Dagoeneko lortu nahi dena ez dira ezagutzak eta egiten jakiteak, baizik eta ikasleek barneratu behar dituzten konpetentziak: arrazoiketa, era bateko edo beste egoerak edo problemak ebaztea, jatorrizko ekoizpen bat egitea etab. Horrek ez du esan nahi ezagutzak eta egiten jakiteak ebaluazioan lekurik ez dutenik; alderantziz, ebaluatzen dira, baina ez bere horretan, baizik eta egoera konplexuak konpontzeko mobilizatu beharreko baliabide gisa”*, jarraitu zuen. Egoera konplexuak ebaluatzeko behar diren baliabideak agertzen saiatu zen bere hitzaldian. •



XAVIER ROEGIERS ETA ALEXIA PEYSEREK HIRU URTE DARAMATE IKASTOLEN ELKARTEKO ARDURADUNEKIN KONPETENTZIEI INGURUAN LANEAN. ARGAZKIAN ALEXIA P., XAVIER R. ETA JEAN MIXEL ETXEGARAY.

▲ *zein den bestetik. Gure ebaluazioek ematen duten informazioak eskola baten errendimendua zein den erakusten du. Eskolarik onena emaitza onenak dituena da, eta kito. Ranking hori faltsua da, ordea. Balio erantsia familien kultura heredatuaren gainean eskolak egiten duen ekarpena bada, gerta liteke eskolarik onena auzo txiro batekoa izatea, ekarpen handiena eskola horrek egin duelako”*, jarraitu zuen.

Balio erantsia kalkulatzek, ordea, baditu bere zailtasunak, eskolaz kanpoko eragileen eragina neurtzea ez baita erraza. *“Britainia Handian, esate baterako, lan asko egin dute arlo honetan. Gela batean sartu aurretik ikasle batek duen errendimendua neurtzen dute, ikasturtearen bukaeran emaitzen neurria jakin ahal izateko. Gisako neurketak egiten dituzte Bigarren Hezkuntzaren atarian ere. Aldi berean, ikasle bakoitzak eskolara iristean dakarren ondarea ere neurtzen dute. Maila sozio-ekonomikoa eta kultura neurtzen dituzte gehienbat. Ama hizkuntza, talde nortasuna eta beste zenbait eragile ere aztertzen dituzte, gero eskolaren ekarpena zein den jakiteko”*, esan zuen.

Zertarako erabiltzen da balio erantsia? Orain arte ebaluazioaren emaitza ‘godinak’ erabiltzen genituen. *“Balio erantsiaren teknologiak, ordea, aukera ematen du balio ‘garbiak’ lortzeko, hau da, eskolaren erantzukizunarekin bakarrik lortutako emaitzak izateko. Garia eta lastoa banatzen ditu”*, esanez bukatu zuen. •

“BALIO ERANTSIAREN TEKNOLOGIAK, ORDEA, AUKERA EMATEN DU BALIO ‘GARBIAK’ LORTZEKO, HAU DA, ESKOLAREN ERANTZUKIZUNAREKIN BAKARRIK LORTUTAKO EMAITZAK IZATEKO. GARIA ETA LASTOA BANATZEN DITU”.



RAFEL LEMUS

PISA probak, aldaketak bideratzeko abagune



“PISA COMO EXCUSA” liburua kaleratu zuen Carles Monereok beste hainbat egileen artean. Esperientzia aurrera eramán duen RAFEL LEMUS, Bartzelonako Manuel de Cabanyes institutuko zuzendariak gure artean izan da. Heziketan aldaketak sartzeko abagune bat dela uste du Lemusek, eta bere ikastetxean burutzen ari diren esperientziaren berri eman zuen Gasteizen. Liburuan ebaluazioari buruzko teoriak eta praktikak ikertzen dira. Bere ideia nagusia hau da: ebaluazioa bitarteko ezin hobea da hezkuntza aldatzeko eta PISA probak horretarako erabili behar dira. *“Konpetentziak zer diren ikusi, ebaluazioari buruz gogoeta egin eta arazo jakin batzuen bidez ebaluatzen ikasi genuen. Irakaskuntzan ebaluazioak duen eraginaz ohartu ginen”*, esan zuen Rafel Lemusek. Gela bakoitzaren diagnostikoa egitetik abiatu ziren. *“Gure ikasleen hiru herenak porrot egiten dute. Irakasle bakoitzak bere aldetik lan eginda, ezin genuela aurrera atera ikusi genuen. PISA proben bidez lortu genuen gela barruko argazkia. Horretarako ikasleen tipologia bat egin genuen”*, gaineratu zuen. Adibide bezala, *“badago beste ikasle mota bat eskolara egokitzen dena. Familian aita mekanikoa eta ama jostuna dira. Etxeko giro sozio-kulturalak ez dio ikasleari askorik laguntzen, baina ikasketak pasaporte bat direla erakutsi diete seme-alabei, bizimodu hobe baterako bide bat. Badira beste batzuk erakundearen kontra daudenak”*, esan eta bospasei ikasle tiporen deskribapena egin zuen, eta horren araberrako sailkapenak egiten hasi zirela gogoratu zuen. *“Mapa horiek garrantzitsuak dira gauzak hobetzen hasteko”*, erantsi zuen. Esperientzia Carles Monereo Bartzelonako Autonomoko irakaslearen gidaritzapean burutu dute. •

“PISA, AITZAKIA GISA” IZENBURUAREKIN AUKERAREN NONDIK NORAKOAK AZTERTU ZITUEN RAFEL LEMUSEK. ARGAZKIAN MARIA GALDEANOREKIN.



PRESTAKUNTZA TALDEA
EZKERRETIK HASITA: ZUBEROA BEOLA, MANU AURREKOETXEA, JEAN MIXEL ETXEGARAY, LEIRE PENAGARIKANO,
IRENE LOPEZ-GOÑI, INAZIO ARREGI, MARI KARMEN LEJARZA ETA BELEN BAZTARRIKA.

MANU AURREKOETXEA

Zer-nolako irakasleak behar ditugu?

Hezkuntza sistemaren kalitatea irakaslearen baitan dagoela diote ikerlariek. Ideia horretatik abiatu zen **MANU AURREKOETXEA**, Ikastolen Elkarteko Prestakuntza arduraduna, irakaslearen profil berria marrazteko. *“Hezkuntzaren paradigma aldatu behar badugu, irakaslearen profila ere aldatu beharko dugu. Zertan?”*, galdetu, eta azken urteotan Prestakuntza Taldeak prestatu duen proposamena agertu zuen bere hitzaldian.

“Zenbat eta profesional hobeak, Zorduan eta emaitza hobeak. Ardura honek bultzatu behar gaitu hobetzera”, jarraitu zuen. Aurkeztu duten proposamenak ispilu bat izan nahi duela erantsi zuen, irakasle bakoitzak bertan begiratu eta ‘orrazteko’.

“Oraindainokoa prestakuntza material edo proiektu berrien arabera egin izan dugu lan, eta ez dago gaizki, baina beste pauso bat eman behar dugu: irakaslearen profil bat garbi dugun unetik prestakuntza planak burutzen has gaitzke, eta unibertsitate ezberdinekin lankidetzatza bat bideratzen ere bai. Datorren hamarkadan gure irakasleen %30 berrituko da. Hori jakinik, irakasle berri horien prestakuntzan egin

dezakegun lana etorkizuneko inbertsio bat izango da. Unibertsitate ezberdinekin harremanetan jarri nahi dugu auzi hau aztertzen hasteko”, jarraitu zuen.

Irakaslearen profil hori zertarako den agertu ondoren, nola landu behar den kontatzen hasi zen. *“Prestakuntza taldean egin behar dugu. Ez du irakasle bakoitzak bere burua bakarka landuko. Ikastolan badugu taldean lan egiteko eta sareak egiteko ohitura”*, esan zuen.

Bezperan, **Mikele Aldasorok** Irakasleen Irteera Profilaz esan zuen bezalaxe, irakaslearen profil orokorra eta espezifikoak berezi zituen, guztiak **Xabier Roegiersen** Integrazio Pedagogian oinarrituta ari baitira lanean. Pedagogia horrek *“eskola-*



MANU AURREKOETXEA ETA
NAGORE AMONDARAIN.

jakintzak beren artean integratzea du helburu, bai eta jakintza horiek bizitzarekin lotzea ere”, esan zuen. Profil orokorra osatzen duten ezaugarriak izendatu zituen lehenik Manu Aurrekoetxeak eta profil espezifikoarenak ondoren. Profil espezifikoari dagokionean, gisa honetako ezaugarriak aipatu zituen, esate baterako: *“Ikastola-eredua hobetzeko ideiak proposatuko ditu, bere gain hartuko du ikastolako bertako eta ikastolen kolektiboko hezkuntza-proiektua, eta proiektu hori*

ezartzeko modu koordinatuan lan egingo du hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile guztiekin”.

“Bikaintasunez menderatuko ditu ikasleari eskatzen zaizkion kompetentziak, dagokion mailan eta arloan”.

Hemeretzi ikastolatan aurkeztu dute dagoeneko proposamena, eta jaso dituzten balorazioen berri eman zuen Aurrekoetxeak. •

“ZENBAT ETA PROFESIONAL HOBEAK, ORDUAN ETA EMAITZA HOBEAK. ARDURA HONEK BULTZATU BEHAR GAITU HOBETZERA”.

“BIKAINASUNEZ MENDERATUKO DITU IKASLEARI ESKATZEN ZAIZKION KONPETENTZIAK, DAGOKION MAILAN ETA ARLOAN”.



ANTONIO RODRÍGUEZ DE LAS HERAS ETA IRENE LOPEZ-GOÑI. BATERATZEKO SAIOAN: MANU A., ANTONIO R.H., IRENE I. G. NAGORE ITURBE (ABUSU IKASTOLA), MARISA ALVAREZ (IRURA IKASTOLA) ETA IRANTZU MOLERO (TXINTXIRRI IKASTOLA).



ANTONIO RODRIGUEZ DE LAS HERAS

“Umea Einstein txiki bat da eskolara joan arte”

RODRIGUEZ DE LAS HERAS Madrilgo Carlos III Unibertsitateko irakasleak gure eta eskolak gizarte honetan zer egiten duen agertu zuen modu distiratsuz.

Metafora bat erabili duzu gaurko gizarte teknologikoa definitzeko. Gure aurreko gizartearen zaborteak tresna apurtuz beteak daude. Gurean tresna matxuratu gabeak aurkitzen dira. Hala da. Datu hori harrigarria izango litzateke etorkizuneko arkeologo batzuk aurkituko balute. Gure zabortegiko tresnak matxuratu gabeak dira, baina

iraungita daude, tresna horietako bakoitzaren lekuan berriago bat agertu delako. Lehen gauza bat apurtzen zenean haren berdin bat egiten zen. Orain etengabe egiten ditugu berriak. **Gizarte honek informazioa ezagutza bilakatzen duela agertu duzu hitzaldian.** Garuna erabiliz bilakatzen da informazioa ezagutza. Garai batean indarra edo energia behar zen zerbait ekoizteko. Gaur garuna da ezagutzaren fabrika. **Nola metabolizatzen informazioa garunak?** Heziketa oso garrantzitsua da honetarako. Sehaskan gaudenetik metabolizatzen du garunak

informazioa. Datu zehaztatik abstrakzioak lortzen ditu. Ume bakoitza Einstein txiki bat da eskolara joan arte. Eskolan informazioa pilatzen hasten gara eta garuna blokeatu egiten dugu. Informazio gehiegi pilatuz gero, garunak ez du ezagutzarik ekoizten. Garai bateko amek horrelako zerbait egiten zuten elikagaiekin: umeari jan gehiegi ematen zioten, potolatzeko. Gutxiegi ematea ere txarra da. Erdi bide bat bilatu behar da. Garuna gehiegi ez kargatzeko asmatu dira ordenagailuak. **Zer esan nahi duzu horrekin?** Memoria ez gehiegi

kargatzeko protesi batzuk, osagarri artifizial batzuk, asmatu ditugula. Memoria gure soinetik kanpo baina eskura jarri dugu. Hori, noski, ezagutzaren bidez egin dugu. Teknologia ezagutza kondentsatua da. Horregatik deitzen zaio gizarte honi ezagutzaren gizartea edo gizarte teknologikoa. **Zer ikusirik du eskola guzti honetan?** Eskolak kontuan hartu behar du ume bakoitza protesi horrekin doala gelara. Eskolak garunak prestatu behar ditu, baina ez informazioa pilatuz. Ezagutzak ekoizten erakutsi behar du. •

ALFONSO VAZQUEZ “Irakasleok zarete azken proletarioak”



“ZER DAGOEN LANAREN ATZEAN, ZER UZTEN DUEN AGERIAN HEZKUNTZAK” GALDEREI ERANTZUNEZ ARITU ZEN ALFONSO VAZQUEZ. ARCAZKIAN INMA MUÑOAREKIN BATERA.

Erakunde eta enpresa antolaketan aditua den ALFONSO VAZQUEZek (Hobest Consultores bulegoko aholkularia da) oso hitzaldi argigarria eman zuen. “*Lan fisikoak egiteko diseinatutako enpresa eta erakundeak dira gureak. Ikastolak ez ditut askorik ezagutzen, baina hezkuntzan bertan ere prozesuak zatika egiteko pentsatutako erakundeak ditugula uste dut. Lan fisikoak ez du inolako zentzurik egiten duenarentzat. Langile bakoitzak bere pieza egiten du behin eta berriz. Hezkuntzan ere eskema hau kopiatu da. Zer da, bestela, lana ikasgaietan banatzea? Askotan esaten dut zuek, irakasleok, zaretela azken proletarioak, dagoeneko kanpoko enpresetan lana ikusteko modu hori aldatzen ari baita. Horrela lan eginez, ezin dezakezue etengabe aldatu behar duela erantsi zuen. “Irakasleek ez dute elkarrekin harremanik. Irakasle bakoitzak bere ikasgaia kudeatzen du, baina ez du talde bezala irakaskuntza kudeatzen. Irakasleak, bestalde, orduka neurtzen du bere lana, eta denbora neurtzeko modu hori makinaren ordutegia da. Baina bi denbora mota daude eta badago beste bat, gertakariaren denbora deitzen dioguna: intentsitatearen denbora da hori eta horrek gehiago balio dezake irakaskuntzan lan egiteko. Hirugarrenik, izugarri larria iruditzen zait irakasleek elkar-lanerako, hitz egiteko, partekatze denborarik ez izatea. Ezin da irakaskuntza aldatu intentsitatearen edo pasioaren denbora hori ematen ez bazaio”, jarraitu zuen. Gaurko egoeraren hainbat kontraesan modu probokatzaile batean aztertuz burutu zuen hitzaldia. •*



ETENGABEKO PRESTAKUNTZAZ ARITU ZEN MONTSERRAT VENTURA. ARGAZKIAN ERRAMUN MARTIARENA, NAGORE, MARISA ETA IRANTZUREKIN BATERA.



MONSERRAT VENTURA

“Prestakuntza irakasleen premietatik abiatu behar da”

Ikastetxeetako aldaketa prozesuetan ikerketak egiten dituen irakaslea da **MONTSERRAT VENTURA** Bartzelonako Autonomoan. Hogei urte daramatza ikastetxeetan aholkulari lanetan. Hitzaldi txalotuenetako bat izan zen berea.

Prestakuntza plan orok irakasleen premietatik abiatu behar duela esan duzu hitzaldian. Prestakuntza plan bat martxan jarri aurretik irakasleei entzun behar zaie. Hori izan da nire aholkulari esperientziatik atera dudana lehen ondorioa. Orain, esate baterako, Terrasako Bigarren Mailako

ikastetxe batean ari naiz lanean, eta joan bezain pronto esan zidaten ezertan hasi baino lehen entzun egin behar niela, ez hasteko nire planak esplikatzeko. Eta horixe egin nuen hasieran. **Eta zer kontatzen dute irakasleek?** Beren esperientziak kontatzen dituzte. Oso ikastetxe gatazkatsua izaki, arazoak zigorren bidez konpontzen dituzte eta ataka gaizto horretatik nola atera pentsatzen eman ditugu lehen hilabeteak. Egun osoa zigortzen igarotzen zuten eta etxera itzultzen zirenean gaizki sentitzen ziren. Horixe lortzen du

zigorrak: zigortua gaizki sentitzen da eta zigortzailea ere bai. Ikasle asko dituzte irakasleei mehatxu edo irain egiten dietenak. Zigorren bidez saiasten ziren arazoak konpontzen, baina ez zuten ezer lortzen. **Zer ondorio atera dituzue?** Egoera horiei irakasle batek ezin diela bakarka erantzun. Hori da atera genuen lehen ondorioa. Ikasle zail horiekin harremanetan sartzeko beste modu batzuk aurkitu behar direla aztertu genuen ondoren. Ez dugu biderik aurkitu, baina bidezidor batzuk aurkitzen ari gara. Esperientzia

honetan parte hartzen duten irakasleak prestakuntza elkarrizketa-gune gisa ulertzen dute, eta horrela ulertzen dut nik ere. **‘Esperientzia kontakizunak’ ere egiten dituzuela esan duzu.** Lanerako tresna gisa erabili ditugu ‘esperientzia kontakizunak’. Irakasle bakoitzak bere ibilbide profesionala kontatzen du. Kontakizun horien bidez bakoitzaren pentsaera zein den jakin dezakegu eta bakoitzak besteari lan egiteko modua ezagutzen du. Aholkularia, ikuspegi honetatik begiratuta, prestakuntzan edo aldaketa prozesu horietan laguntzailea da, eta ez besterik. •

ISABEL SOLANA eta JULIO FONTAN Fontan metodoa, ikasle bakoitzaren neurria

ISABEL SOLANA Matematikan lizentziatua, eta Madrilgo Santa Maria la Blanca ikastetxeko zuzendari ordea da gaur. Urte batzuetako ibilbide profesional baten buruan Fontan metodoa edo harreman bidezko sistema ezagutu zuen. Berarekin etorri zen sistemaren bultzagile nagusietako bat den **Julio Fontan** ere. Bere gurasoek sortu zuten metodoa Kolonbian 1957an, eta herrialde hartan oso zabaldua dago. Sistemaren oinarria ikasle bakoitzari egokitutako ikasketa planak egitean datza. Ikasle bakoitzaren diagnostikoa egiten da, eta horren arabera ezartzen zaizkio lanak eta laguntzen zaio ikasle bakoitzari. *“Julioren lana ezagutzen genuen eta oinarritzko irizpide bat hartzen du kontuan: ume bakoitzaren gaitasunetatik abiatu behar dela. **Ikaslea da aktore nagusia eta irakasleak ikasketa prozesuan laguntzeko daude**”,* hasi zen Isabel. Iazko ikasturtean hasi ziren Santa Maria la Blancako HHn eta LHN metodo honekin lanean, eta aurten hasi dira DBHn. *“Ikaslearen diagnostikoak bakoitzaren kezak, gustuak, iritziak bildu, eta beren gaitasunen neurria ematen du; hortik abiatuta lan plangintza bat egiten zaio”,* esan zuen. Metodoari buruzko xehetasun praktikoa asko eman zituen. Aldaketa deigarrietako bat, ikasleak bere kabuz ikasketak antolatzeko duen autonomia da. *“HHn eta LHN egiten da hori. Ez da ordutegia ikasgaien arabera antolatzen. Guk Bigarren Hezkuntzan ere antolaketa modu horrekin jarraitzen dugu”,* esan zuen. Horrek irakasleen egitekoak erabat aldatzen dituela erantsi zuen, eta tutorearen, analistaren edo koordinatzailearen zereginak zein diren agertzen jardun zuen. •

ISABEL SOLANA, JULIO FONTAN ETA NEREA ARRESI, FONTAN METODOAREN AURKEZPENEAN.





JOSUNE GEREKA, XABIER MAIZA, MAITE GOMEZ ETA OIHAN ODRIOSOLA: IKT-ak

“Ikastolok abantaila handiak ditugu IKTeen lanketan”



Informazio eta Komunikazio Teknologien inguruan Ikastolen Elkarteak egin duen ibilbidea agertu eta IKT kompetentzien lanketa nola ikusten duten adierazi zuen **JOSUNE GEREKA**ak, IKT proiektuaren arduradunak. Iñaki Etxezarretak aurkezpenean gogoratu zuen Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak izan zela ikas-materialgintzan teknologia berriak baliatzen hasi zena eta geroztik, Josune Gereka buru bada ere, beste hainbat profesionalak eta ikastolako irakasleak egin dutela lan proiektuan. **LEKUONA, AZKUE, ZUBIZARRETA, SOLABARRIETA, TRIGEROS, ITURBURU, AIZA, FERNANDEZ, ETXABE, ODRIOSOLA, GOMEZ** eta beste zenbait izen aipatu zituen.

“2000. urtean hasi ginen IKT plan baten diseinuan. Ikastolen esparru guztietara zabaltzen den proiektua da. Hasieratik ardatz nagusi batzuk jarri genituen martxan: ikastoletako azpiegitura indartzea, irakasle eta profesionalen prestakuntza, giza baliabideak jartzea (orduan hasi ginen IKT dinamizatzaileak ikastoletan jartzen), software baliabideak sortu genituen

bai ikastetxearen kudeaketarako eta bai irakaskuntzarako eta, azkenik, dinamizazio lan bat egin dugu”, hasi zen Josune Gereka.

Administrazioaren aldetik izan diren ekimenak ere aipatu zituen IKT proiektuaren arduradunak. **“Ikastetxeen Heldutasun Teknologikoen markoa definitzen duen dekretua atera zuen joan den legegaldian, baina ez dago batere finkatua, ez da martxan jarri.**

Zer lortu nahi du Heldutasun Teknologikoak? Ikastetxeen digitalizazio maila neurtzea. Guk ere gure aldetik adierazle guztiak definitu gabe ditugu, baina marko orokorra oso aurreratua dugu”, jarraitu zuen, eta ikas-irakaskuntza prozesuari zein kompetentzia digitalen markoari heldu zion.

Aurretik, ordea, ikastolan gaur ditugun belaunaldiei buruzko ohar batzuk eman nahi izan zituen. **“Jatorriz digitalak diren haur eta gazteak gurekiko zer berezitasun dituzten kontuan hartzea beharrezkoa da. Abiadura azkarrekoak dira, prozesatze lanak paraleloan egiten dituzte, testuak irudia ilustratzeko balio du haien artean eta ez alderantziz, konektatuak bizi dira eta, azken**



finean, teknologia lagun gertatzen zaie, ez die beldurrik ematen”, esan zuen. Horrekin batera zera gogoratu zuen, hots, ikasle horiek **“oraindik asmatu gabe dauden teknologiak erabiltzeko, oraindik ezagutzen ez**

“IKASLEA GAI DA BERE BIZITZAKO EREMUETAN EGOERA BAKOITZAK ESKATZEN DUEN IKT BALIABIDEEN ERABILERA EGOKIA, ERAGINKORRA ETA ARDURATSUA EGITEKO, INFORMAZIOA KUDEATZEKO, ELKARLANEAN ARITZEKO, EKINTZAILE IZATEKO ETA HORREKIN GUZTIAREKIN EZAGUTZA SORTU ETA PARTEKATZEKO”.

ditugun problemak ebazteko” prestatu behar ditugula.

“Internetek 4 urte behar izan ditu 50 milioiko audientzia lortzeko, irrtiak 38 urte behar izan zituen eta telebistak, berriz, 13. Aldaketa izugarri baten garaian gaude, beraz”, gogoratu zuen, eta “prestatuak al gaude XXI. mendeari aurre egiteko?”, galdetu zuen.

“Zein da hezkuntzaren xedea?”, esan zuen segidan, eta “ikasleari bizitzaren eremu guztietan behar dituen oinarriko baliabideak eskaintzea” dela erantzun zuen proiektuaren helburua. Ondoren, kompetentzia orokor eta espezifikoak hitz egitera pasatu zen, horien definizioa irakurriz. “Ikaslea gai da bere bizitzako eremuetan egoera bakoitzak eskatzen duen IKT baliabideen erabilera egokia, eraginkorra eta arduratsua egiteko, informazioa kudeatzeko, elkarlanean aritzeko, ekintzaile izateko eta horrekin guztiarekin ezagutza sortu eta partekatzeko. Horrela definitu dugu oraingoz IKT kompetentzia orokorra;



lehenik ditugun ikas-materialetan txertatzen ari gara kompetentzia digitalak eta aurki IKTak ez dira ikusi ere egingo, erabat txertatuta egongo dira”, esan zuen.

IKASTOLA IREKIA proiektuaren aurkezpena egin zuen ondoren **XABIER MAIZAK**. 2002. urtean Ikasdat aplikazioaren hasierako azterketaz arduratu zen, eta geroztik Ikastola Elkartearen arduraduna da gestio aplikazioetan. Familien eta ikastolaren artean zerbitzuak partekatzeko eraikitzen ari diren gunea aurkeztu zuen bere hitzaldian.

“Orain dela zazpi urte Ikastolen Elkartek bide berri bat irekitzea erabaki zuen, gestio aplikazioen garapenean hastea, alegia. Bidea ez da erraza izan, ez guretzat eta ez ikastolentzat ere, eta aitortu beharra daukat zertan sartzen ari ginen jakin izan bagenu, ez ginela beharbada sartuko”, hasi zen zailtasunak aitortuz. **IKASDAT** aplikazioari buruz hitz egin zuen lehenik. “Oinarriko kudeaketan ikastolek zituzten beharrei erantzuteko sortu genuen: ikasleen eta familien datutegiak kudeatzeko, errezipa eta noten kudeaketa egiteko. Aplikazioa hobetuz joan da eta gaur aipatutakoak baino funtzionaltasun gehiago eskaintzen dizkigu”, jarraitu zuen.

Bigarren urratsa **IKAS WEB**aren garapena izan zen, “batetik ikastolei Internetera



begiraleak. Figura horien eta gurasoen arteko lotura egingo du gune honek. Eta, azkenik, gune honen bidez izango dute gurasoek gela barruko ekitaldien berri ere, txangoak direla, kontrolak direla edo beste zernahi den ekintza”, jarraitu zuen Maizak.

IKASYS proiektuaz hitz egin zuten, azkenik, **MAITE GOMEZ**ek eta **OIHAN ODRIOLAK**. “2000. urtean jarri zen abian proiektu hau. Hezkuntza arloko proiektu berritzaileak da, eta azken hiru urteotan hardware mailan eman diren aurrerakuntzei eta izan ditugun diru-laguntzei esker eman ditugu urrats



jauzia egiteko aukera ematen zielako, eta bestetik barruko hainbat kudeaketatan lagun zezakeela pentsatzen genuelako”. Bi gune hauek bat egin behar zutela ikusi zuten; horrela, gaur egun irakasleek Ikas Web bakarrik erabiltzen dute eta Ikasdat ikastolaren idazkaritza tresna bilakatu da.

Azken urratsa **IKASTOLA IREKIA**arena da. “Ikastola eta gurasoen arteko kudeaketan bide berri bat eskaintzen du, ikastolaren hainbat zerbitzu Internet bidez kudeatzeko aukera ematen baitu. Abiapuntu bezala, zerbitzu batzuk aukeratu ditugu eta etorkizunean nolakoa izango den? Auskalo!”, esan zuen.

Jangelaren eta eskolaz kanpoko kudeaketa egin nahi da gunearen bidez. “Ikastola barruan ditugun figura ezberdinen eta familien arteko lokarri izan nahi du guneak. Jangela zerbitzuan, esate baterako, figura askok hartzen dute parte: alde batetik zerbitzu arduraduna dago. Berak kontrolatzen ditu txandak eta begiraleak. Familiek etxetik edo lanetik alta eman edo eskariak egin ditzakete, eta arduradunak oharrak jasoko dituzte. Eskolaz kanpoko ekintzetan ere badago administratzaile orokor bat; jarduera bakoitzak bere arduraduna izango du, eta jarduera bakoitzaren barruan sortzen diren taldeek ere izango dituzte beren

“ALDE BATETIK HARDWAREA DUGU ETA BESTETIK SOFTWAREA NON HIRU APLIKAZIO GARATU DITUGUN: DISEIGNER EDO EDUKI SORTZAILEEN APLIKAZIOA; TRAINER, IKASLEEK ARIKETAK EGITEKO; ETA INSPECTOR, IRAKASLEEK EMAITZEN JARRAIPENA EGITEKO ERABILTZEN DITUZTENAK”.



gero kompetentzia espezifikoaren atalak definitu beharko genituzke”, esan zuen.

IKT kompetentziak, ordea, ikas arloetan landu behar dira, bertako jarduerak digitalizatuz. “Ikastolak abantaila bat dugu gai honetan: gure ikas-material propioak eta gure proiektu propioak ditugula. Beste ikastetxeek ez dute hori. Gure Ostadar edo Txanela proiektuetan integratu behar ditugu kompetentzia horiek; ari gara dagoeneko txertatzen. Eskola 2.0 plataforman hau da oinarrian duten arazoetako bat. Irizpideetan denok ados gaude. Kompetentziak nola garatu behar dira? Hor dago kokka. Ikastolan abantaila handiak ditugu”, jarraitu zuen.

Josune Gerekek IKTei buruzko ibilbidea jorratu zuen ondoren, eta IKTak hasieran gehigarri gisa agertu zirela gogoratu zuen. “IKTei buruzko alfabetatzea egiten zen lehenik. Ondoren osagarri moduan sartu ziren eta baliabide didaktiko moduan ulertzen hasi ginen segidan. Gu orain,

IKASTOLEN ELKARTEKO IKT TALDEA: EKZERRETIK HASITA LEHEN ILARAN: NAIRA M., XABI I., OIHAN O. AMAIA T., MIKEL E., ARITZ T. EMILIO E., XABIER M.; BIGARRREN ILARAN: PETRO V., INAKI Z., JOSEBA B., ARANTXA A., MAITE G., IULEN A., BELEN B., JOSUNE G., JAIONE M., ANAIDA G., RAMÓN G., XABIER G., JOXIN A., MANEX E., IOSU I., LORAIN E., MIKEL H., ANDER I., NEIDE G., FULTXO C.



▲ handiak”, hasi zen Maite Gomez. “Zer da Ikasys?”, galdetu zuen ondoren. “Hiru osagai uztartzen dituen sistema bat da —erantzun zuen—. Alde batetik, hardwarea dugu, ordenagailu txikiak, wifia, airairua eta web zerbitzaria. Beste aldetik softwarea dugu, eta bertan hiru aplikazio garatu ditugun: Diseigner edo eduki sortzaileen aplikazioa; Trainer, ikasleek ariketak egiteko erabiltzen dutena, eta Inspector, irakasleak emaitzen jarraipena egiteko erabiltzen dutena”.

“IRAKASLE TALDEAK ARITU DIRA EDUKI GUZTIAK ANTOLATU, SORTU ETA EGITURATZEN. BERREHUN MILA ARIKETA HORIEK TAULETAN ANTOLATU, SEKUENTZIAK SORTU ETA GELAXKATAN BILDU EGIN GENITUEN TREBAKUNTZA, MEMORIA ETA ULERMENA LANTZEKO”.

Oihan Odriozolak Diseigner aplikazioarekin egin den lan izugarria agertu zuen. “Irakasle taldeak aritu dira eduki guztiak antolatu, sortu eta egituratzen. Berrehun mila ariketa horiek tauletan antolatu genituelarik, bigarren fase batean sekuentziak sortu, eta horiek gelaxkatan bildu genituen. Hamabi ikastolatak hogeita hamar bat profesional aritu dira iazko ikasturtean zehar edukiak lantzen. Zer eskaintzen du eduki aldetik?

Trebakuntzan, memorian eta ulermenean oinarritutako ariketa sortak eskaintzen ditu. DBHko saioak asteen ordubetekoak dira, eta LHkoak, aldiz, ordu erdiko bi saio. Zailtasunaren arabera mailakatuta daude eta ikasleen aniztasunari erantzun nahi diote”, esan zuen.

Odriozolak gogoratu zuen proiektuak eskatzen duen azpiegiturak, Ikasyserako balio izateaz gainera Interneteko beste erabilera guztietarako ere balio duela.

Gipuzkoako hiru ikastolatan jarri zen abian proiektua espermentazio gisa, 200 bat ikaslerekin. Jasotako proposamenekin hobekuntzak integratu eta 2008-2009 ikasturtean 16 ikastolatan aplikatu zen. Mila eta berrehun ikasle hartu zuten parte eta beste hainbestek kontrol taldeetan, kanpoko EHUko ikertzaile batek emaitzen neurketa egin baitzuen. Neurketa horrek oso ondorio baikorrak eman zituen. Maite Gomezek luze agertu zituen ikerketaren ondorioak, eta kontrol taldeekin alderatuta Ikasysekin ariketak egiten ibililtako ikasleek arlo guztietan aurreratu zutela nabarmendu zuen.

Aurten hedatu da proiektua; LHko 7.000 ikasle ari dira 34 ikastolatan Ikasysekin lanean eta beste mila bat sartuko dira aurki. Otsailetik aurrera, gainera, DBHko lehen zikloan dozena bat ikastola hasi ziren lanean. •



CRÓNICA TELEGRÁFICA DE UNAS JORNADAS

El presidente de Ikastolen Elkarte Koldo Tellitu recordó en su saludo de apertura de las jornadas que las ikastolas habían estado desde sus inicios “entre los mejores” por necesidad, “porque era la única manera de que nos hicieran

un hueco en el sistema de enseñanza”. La innovación sigue siendo una necesidad y prueba de ello es el Currículo Vasco, “el gran reto de los próximos años”. Xabier Garagorri y Mikele Aldasoro dieron cuenta del desarrollo que está teniendo este magno proyecto que engloba e impregna al resto de los proyectos. Xavier Roegiers, que asesora a las ikastolas en el ámbito curricular, habló de la pedagogía de la integración que lo inspira. Javier Murillo expuso el concepto de valor añadido en la escuela, un concepto que sirve para medir lo que aporta ésta a la formación de un alumno. Manu Aurrekoetxea abrió la segunda jornada con una propuesta sobre el perfil idóneo del profesorado. Antonio Rodríguez de las Heras hizo una descripción metafórica de la sociedad de la innovación, donde ha sido posible crear una prótesis, “una memoria exenta, ubicua y de acceso fácil” para guardar la información, porque por encima de un umbral el exceso de información bloquea el cerebro e impide metabolizar la información en conocimiento. Moserrat Ventura hizo hincapié en la necesidad de partir de las necesidades de los docentes en los planes de formación. Alfonso Vazquez señaló la necesidad de adecuar las empresas a las exigencias de la sociedad y Josune Gereka, Mikel Maiza, Maite Gomez y Oihan Odriola, de equipo de ICT de las ikastolas, expusieron tanto el marco del plan como algunas de los últimos proyectos.

CHRONIQUE TÉLÉGRAPHIQUE DES JOURNÉES

Le Président de Ikastolen Elkarte Koldo Tellitu a rappelé lors de son discours d'ouverture des Journées Pédagogiques que les ikastola ont été depuis le début “parmi les meilleures écoles” par nécessité, “parce que c'était la seule façon pour qu'on nous fasse de la place dans le système éducatif”. L'innovation reste aujourd'hui encore le maître mot et le Curriculum Basque est “le grand défi des prochaines années”. Xabier Garagorri et Mikele Aldasoro ont rendu compte du développement de ce grand projet qui englobe tous les autres. Xavier Roegiers, qui a conseillé les ikastola au niveau curriculaire, a parlé de pédagogie d'intégration dont il s'inspire. Javier Murillo a commenté le concept de valeur ajoutée à l'école, un concept servant à mesurer ce qu'apporte de plus ce projet à la formation de l'élève. Manu Aurrekoetxea a ouvert le deuxième jour avec une proposition sur le profil idéal du professeur. Antonio Rodríguez de las Heras a fait une description métaphorique de la société d'innovation par laquelle il a été possible de créer un appareillage, “une mémoire libre, ubiquiste et facile d'accès” pour conserver l'information, car au-delà d'un certain seuil l'excès d'information bloque le cerveau et empêche de métaboliser l'information en connaissance. Moserrat Ventura a mis l'accent sur la nécessité de partir des besoins des enseignants dans les plans de formation. Alfonso Vazquez a souligné la nécessité d'adapter les entreprises aux exigences de la société et Josune Gereka, Mikel Maiza, Maite Gomez et Oihan Odriola, de l'équipe TIC des ikastola, ont présenté le cadre du plan TIC et les derniers projets de ce dernier.

ondorioak

XVII. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK KONPETENT ZIETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA BERRITU ETA HOBETU 2010EKO MARTXOAREN 9, 10 ETA 11

Parte hartzea:

680 profesionalak parte hartu dute 3 egun hauetan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak antolatutako XVII. Jardunaldiotan. Euskal Herri osoko 85 ikastola/ikastetxe egon dira ordezkaturak.

Edukiaren garatzaileak:

Ikastolen elkarteko 8 ekarpen. 6 aditu. 4 ikastola eta ikastetxe biren esperientziak izan ditugu.

Materiala:

Landutako material osoa eta ondorioak WWW.IKASTOLA.NET web gunean jarri dira.



1



2



3



4

► Hausnartuz eta ekinez amaitu genituen pasa den urteko Jardunaldiak; aurten, orduko lekukoa hartu eta berritza eta hobetza goaz, hausnarketatik ekintzara pasatuz. Berritu eta hobetu elkarrekin kateaturik aurkezten ditugun arren, berrikuntzak eta hobekuntzak biak dira irakasleriaren jardun profesionalaren esku-hartze esparruan sartzen diren planoak. Arreta berezia jarri beharrekoak. Kateaturik daude, elkarren menpe.

1. MANU AURREKOITXEA • 2. KOLDO TELLITU, ISABEL CELÁA ETA IMANOL IGEREGI • 3. XABIER GARAGORRI, MIKELE ALDASORO, XAVIER ROGIER, JEAN MIXEL ETXEGARAY, ABEL ARIZNABARRETA, SORKUNDE LEKUONA (HAURTZARO IKASTOLA), INIGO ORELLA (ANDRA MARI ETXARRIKO IKASTOLA) ETA MONTSE ALKORTA (URRETXU ZUMARRAGA IKASTOLA) • 4. PATXI OLABARRIA, ABEL A., IMANOL I., KOLDO T., MANU A., JOSE LUIS SUKIA, IDURRE MAORTUA, NAGORE AMONDARAIN, JOSEBA A. ETA HUR GOROSTIAGA • 5. XABIER GARAGORRI ETA MIKELE ALDASORO • 6. FULTXO CRESPO, EMILIO ETXABE ETA MAITE SAEZ • 7. XABIER MAIZA, JOSUNE G. ETA JUNAJO GOMEZ • 8. 11. 15. LAN TALDEAK • 9. ARANTZA ARREGI, PETRO VERA, JOXIN AZKUE ETA RAMON GORROTXATEGI • 10. MADRIL ETA COLONBIATIK ETORRITAKO JULIO FONTAN TALDEA • 12. JOSUNE G. ETA JOSUNE G. GOMEZ, MANU A., BELEN B., OIHAN O. • 13. JAVIER LARRAÑAGA (ELGOIBAR), LUISJAR GARCIA (LAUDIO) ETA JOSEBA BILBAO (BIHOTZ GAZTEA IKASTOLA) • 14. EUSKO JAURLARITZAKO ORDEZKARIAK: VICTOR BERMEJO ETA CARLOS CRESPO, JOSE LUIS SUKIAKIN BATERA • 16. AINTZANE GARDOKI • 17. AINTZANE GARDOKI • 18. BELEN B., OIHAN O., MAITE G., ELLANDE ALFARO, AURREKOITXEA ETA ZURINE MENDIZABAL



5



8

► Edukien ebaluaziotik kompetentzien ebaluaziora pasatu behar dugu. Ohiko azterketek ez dituzte ikasleen kompetentziak ebaluatzeko, baizik eta ikaslearen emaitzen eta irakasleen espektatibaren arteko aldea. Arazo errealean ebazpena eta bere lorpen maila ebaluatzea, lan egiteko metodologia aldaketu duen urrats kualitatiboak dira.



12

► Familiekin harremana gero eta estuagoa izan dadin, proiektu edo plataforma digital berria zabaldu dugu, "ikastola irekia", alegia. ► Iaz genion bidetik Curriculum berrirako eskola-materialen egokitze eta hobetze prozesuan, bai eta prestakuntza plan desberdinen eta ebaluazioaren garapenean ere, Administrazioaren laguntza eta inplikazioa ezinbestekoa dugu. Zentzu honetan, talde lanean aritzeko eskaera ozena egiten dugu Jardunaldi hauetatik.



16



6

► Aurtengo Jardunaldiekin 4. urtez ikastolak curriculum berria lantzen ari gara, kompetentzietan oinarritutako curriculum, alegia. Gure Jardunaldietako historian sekula ez diogu eman hainbeste garrantzia gai berberari. Beraz kompetentzietan oinarritutako curriculumak eta berarekin dakarren hezkuntza-paradigma aldaketa geure-geure egiteaz gain, garapen propioa emateko konpromisoa hartzen dugu.



10

► Ondo prestatutako irakaslea behar dugu, eskura izango dituen baliabide mota guztiei etekina aterako dena, ikastola proiektuarekin bat datorrena, kompetentziak bikaintasunez menperatzen dituen eta familia, lankideekin eta ikasleekin elkarlanean arituko dena. Eskolaren hobekuntzak modu iraunkorrean eraike behar dira. Honek konpromisoa eskatzen du, elkarreragina, lan kolektiboa eta instituzionala albo batera utzi gabe.



14



► Onenen artean jarraitzea da ikastolen konpromisoa gizartearen aurrean, horretarako hobekuntza mamitsuak, proiektu berritzaileak gure ikasleen eta familien zerbitzura jarriko ditugu. Ikastolen lanari babesa eta aholkularitza, materiala eta prestakuntza emateko konpromisoa hartzen dugu.



9



11



13

► Irakaslearen profila zehaztuta izatea, irakaslearen autoebaluaziorako eta bere hobekuntzarako ezinbesteko tresna bihurtzen da.

► Eskua luzatzen diegu unibertsitate desberdinei irakaslearen profilaren inguruan eztabaidatzeko. Jakinik hurrengo hamarkadan irakasle berri asko behar direla, lan hau urgentziakoa jotzen dugu.



18



7

► Curriculum espezifikoak lantzeko, ikastolak kultur eragile desberdinekin elkarlaneko beharra eta interesa dugu; hauek, ez bairik gabe, garapenaren azken urratsak bermatzen lagunduko digute.

► Ikasleen errendimenduan eragiten duten faktoreak asko dira, baina horietatik guztietatik soilik batzuk dira eskolaren ardura daudenak. Garrantzitsua da ezagutzea zein den benetan ikastola bakoitzak ikasleen hezkuntzan egiten duen ekarpena. Balore erantsiaren kontzeptuak gero eta erabiliagoa izan behar du gure artean. Bide honetatik ebaluazioaren balore erantsiak laguntza beharra duten ikasleen identifikazioa erraztuko du, bai eta bere garapen doituaren jarraipena ahalbidetuko ere.



15

► Berrikuntza eta hobekuntza prozesuetan teknologia berriak elkarkide bilakatu eta bitarteko indartsu modura erabili behar gaude. Urte gutxitan urrats handiak eman dituenak, itxaropenak eta beldurrak paretsu sortzen dizkigu. Eduki digitalak hor ditugu begi aurrean, eta Jardunaldi hauetan adin guztietarako ezarpen kurrikularak egiteko adibide paregabeak ikusi ditugu.



17

► Azkenik, Ikastolen Elkarteak berretsi egiten du iaz hartutako konpromiso tin-koa kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren lanketan. Bere eskura dauden baliabideak, ikastolako profesionalen eta gurasoen jardunari laguntzeko erabiliko dira.

ikertzaileak gara:
enpresa eta
Teknologia Zentroekin
harremanetan
gaude...

...eta ikasleok
ikerkuntza proiektu
profesionalen parte
hartzen dugu.

**ZATOZ GURE
UNIBERTSITATERA!**



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

- > Mekanikako Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería Mecánica
- > Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Diseño Industrial y Desarrollo De Producto
- > Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Organización Industrial
- > Industria Elektronikako Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Electrónica Industrial
- > Informatikako Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Informática
- > Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Sistemas de Telecomunicación

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua
Administración y Dirección de Empresas
- > Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua
Liderazgo Emprendedor e Innovación

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > Ikus-entzunezko Komunikazioan Gradua
Comunicación Audiovisual
- > Haur Hezkuntzan Gradua
Educación Infantil
- > Lehen Hezkuntzan Gradua
Educación Primaria

ikertzaileak gara:
enpresa eta
Teknologia Zentroekin
harremanetan
gaude...

...eta ikasleok
ikerkuntza proiektu
profesionalen parte
hartzen dugu.

**ZATOZ GURE
UNIBERTSITATERA!**



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

- > Mekanikako Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería Mecánica
- > Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Diseño Industrial y Desarrollo De Producto
- > Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Organización Industrial
- > Industria Elektronikako Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Electrónica Industrial
- > Informatikako Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Informática
- > Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzan Gradua
Ingeniería en Sistemas de Telecomunicación

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua
Administración y Dirección de Empresas
- > Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua
Liderazgo Emprendedor e Innovación

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

- > Ikus-entzunezko Komunikazioan Gradua
Comunicación Audiovisual
- > Haur Hezkuntzan Gradua
Educación Infantil
- > Lehen Hezkuntzan Gradua
Educación Primaria